

3.2.2 Internet-en aurkitutako eduki baten erreferentzia egin lan batean

Zergatik, zer eta nola egin?

Esan beharrik ez dago Internet sarea dugula gaur egungo informazio iturri nagusia. Edozein informazio beharraren aurrean, zuzenean jotzen dugu sarera informazio bila. Informazio hori guztia gure eduki propioak ere sortzeko erabiltzen dugu eta gehiegitan gure informazio iturriak ez ditugu behar bezala kudeatzen.

Interneteko iturri desberdinetan topatzen dugun informazioaren erabilera beti ez da librea edo behintzat ezin dugu guk nahi bezala erabili informazio horren sortzaile eskubideak babestuak egon baitaitezke. Babestuak dauden momentutik, errespetatuak behar dute izan. Baina jarduera honetan, gure iturriak era errez eta azkarrean nola erreferentziatu ditzakegun lantzea proposatuko dugu.

Horretarako, Internet zein bestelako iturrietatik jasotako informazio eta edukiak era desberdinetan erreferentziatu daitezkeela ezagutu beharra dugu. Sistema edo “estandar” desberdinak existitzen dira.

- Wikipedia (es): [Referencia bibliográfica](#)

Sistema horien artean, azken boladan nahiko bigan dago APA deiturikoa. Horren inguruko informazio gehiago hemen duzue:



- [¿Cómo citar con normas APA? \(es\)](#)

Eta sistema desberdinekin batera lan egiteko aukera ematen diguten webgune espezializatuak ere egon badaude:

- [Generador automático de bibliografía \(es\)](#)

Zer da beraz planteatu dezakeguna? Kasu honetan, aipatu dugun erreferentzia generadorea erabiltzea interesgarria bada ere, badago tresna oso interesgarri bat Google Driven integraturik duguna eta Google Doc bat sortzeko garaian erabilgarri izango duguna. “Tools” (Tresnak) menu aukerara bagoaz, “Research” delako aukerarekin, eskubiko aldean aukera kaxa bat irekitzen zaigu non bertan aukera desberdinak baliatuz (bilaketa orokorra, irudiak, Google Scholar, zitak, etab.)

bilaketa zehatz bat eginez, aukeratzen dugun emaitzaren esteka edo zita era errez batean gehitu dezakegun egin beharreko erreferentziazio guztia era automatikoa egiten delarik. Kasu honetan MLA, APA eta Chicago dira aukeran ditugun erreferentzia sistemak. Eskatu diezaiegun ikasleei beraz, egiten dituzten lan kolaboratieboetan Interneteko erreferentziak era egokian egin ditzatela.



Ikaskuntza emaitza

Ezagupen adibideak

- Domeinu publikoko ezagupenean laguntzen du (adibidez, wikiak, foro publikoak, aldizkariak).
- Badaki baliabideak informazio iturri desberdin eta ez sekuentzial bidez sor daitezkeela.
- Ezagutzen ditu berrelkartu eta berrerabil daitezkeen datu base eta baliabide desberdinak.
- Badaki berrerabilitako edukiek beraien egileen nortasuna aipatu behar dutela.

Trebetasun adibideak

- Gai da edukiak aldatzeko modu erraz eta oinarrizkoan edizio funtzioak erabiltzeko.
- Gai da eduki berriak sortzeko, aldez aurretik sortuta dauden eduki desberdinak konbinatzeko..
- Gai da bitarteko digitalen bidez ezagutza adierazteko (adibidez, mapa mentalak, diagramak).
- Gai da edukiak sortu eta elkarbanatzeko lizentzia egokiak erabiltzeko.

Kontsultarako baliabideak

- Bideo labur hau ikusten hastea gomendatzen dugu: [Research Tools in Google Docs \(en\)](#)
- Wikipedia (es): [Referencia bibliográfica](#)
- [¿Cómo citar con normas APA? \(es\)](#)
- [Generador automático de bibliografía \(es\)](#)
- [Do quick research in a document or presentation - Docs ... \(en\)](#)

Lantzen diren gaitasun digitalak

Esparrua	Gaitasuna	Maila
3. Edukien sorrera	3.2 Integrazioa eta berregitea	Ertaina

digcomp [euskaraz](#) - [gazteleraz](#)

Erronken 11 pausoak

Erronken 11 pausoekin lotura	5. Proposamenak sortu 10. Emaitzak aurkeztu
------------------------------	--

[Erronken 11 pausoak](#)

Zenbatetsitako denbora

Jarduera honek erronkak irauten duen denbora iraungo du. Prestaketa denbora oso murrizta da, 10 minutu ingurukoa. Erabiltzen ditugun iturriak erreferentziatu beharra daudela azaldu eta 5 minutu azalpen bideoa ikusteko.

Ebaluatu jarduera hau

Jarduera hau gelan erabili baduzu, mesedez erantzun [galdetegi labur honi](#), minutu eskas bat baino ez du hartuko.

Jabetza eta erabilpen baldintzak

Lan hau Iñaki Telleriak (Tknika) sortu du eta Creative Commons [CC-BY](#) lizentzarekin banatzen da.